

RICARDO BANDRES:

«Jendea gehienetan beldurrez hurbiltzen da epaitegietara»

Epaile izatera lan-beharrak bultzatuta iritsi bazen ere, bokazio izugarria deskubritu duela aitortu dugu. Errenteriarra eta txikitandik Lezon bizi dena 30 urte ditu. Ordiziako epaitegian egon zen lehenengo eta Tolosakoan ondoren. Orain Donostiako gizarte-epaitegiko magistratua da, eta bertan euskaraz egindako bere lehen sententzia atera du. Euskaldunberria eta naturazalea, eskuartean zuen espediente lodi bat utzi eta bere lanari buruzko elkarrizketa atsegin bat izateko aukera eman digu.

HABE.- Zerk bultzatu zintuen epaile izatera?

RICARDO BANDRES.- Karrera bukatu ondoren, lan bila nenbilen eta Eusko Jaurlaritzak beka batzuk atera zituen epailetzarako oposaketak egiteko. Nere burua aurkeztu nuen eta horietako beka bat eman zidaten.


H.- Eta gero bokazioa deskubritu al duzu?

R.B.- Bai. Eta izugarria gainera.

H.- Zaila al da epaile izateko egin behar den bidea?



R.B.- Bai. Oposaketak oso gogorak dira, baina, ematen duenez, azkeneko urte hauetan oposaketa-sistema aldatu egin da. Nik egin nuenean, azterketa guztiak ahozkoak ziren. Orduan zazpi edo zortzi pertsonak osatutako epaimahai baten aurrean ordu betez hitz egin behar genuen. Gaur egun idatziz egiten dira azterketak.



H.- Lehen baino erraza-goak al dira orain?

R.B.- Hala dirudi, baina, hala eta guztiz ere, oso jende gutxi ateratzen du; beraz, ez dakit non dagoen erraztasuna.

H.- Diferente jokatzeko al du jendeak zurekin epaile zarenetik?

R.B.- Bi jende-mota daude. Betiko lagunek beti bezala tratatzen naute eta ez dago aldaketarik, baina

kaleko jendeak, epaile naizela esatean, asko aldatzen du tratua. Jendeari harritzen zaio egunero kalean ikusten duten pertsona bat epaile izatea, eta gehienbat kuriositate handiz hurbiltzen dira.

H.- Eta epaitegira etortzen den jendea nola hurbiltzen da?

R.B.- Segun eta zer jende-mota den. Kaleko jendea beldurrez hurbiltzen da gehienetan, ez dute hemengo giroa ezagutzen eta gauza ezezagunek ematen duten beldurrez etortzen dira. Bestalde, «kinki» eta horrelakoak dituzu eta hauek errespeturik gabe etortzen dira, nabari zaie «tablak» dituztela.

SENTENTZIA INJUSTOAK

H.- Bidali al duzu inor kartzelara?

R.B.- Bai, bat baino gehiago.

H.- Eta?

R.B.- Nik jendea kartzelara bidali izan dudanean, prebentiboa izan da, ez da sententzia baten bidez izan. Hilketak tokatu izan zaizkit eta ezin duzu horrelako gauzak egin dituen jendea kalean utzi, besteentzako arriskutsua da eta. Gogorra da, baina egin behar nuen eta egin nuen.

H.- Nahiz eta legez zuzena izan, ez al duzu inoiz sentitu epai injusto bat ezartzen ari zinela?

R.B.- Batzuetan bai. Adibidez, behin Ordiziako epaitegian 50 urteko gizon bat epaitu nuen. Gizon honek gantzontzilo-pare bat lapurtu zuen Eroski batetan. Barregarria dirudi, baina pertsona hori zigortu egin behar izan nuen.

H.- Eta zein zigor jarri zenion?

R.B.- Uste dut txikiena jarri niola, etxean egun bat egotea edo horrelako zerbait. Ez zen sententzia injustoa izan, legeak horretara behartzen zaituelako, baina, egin zuena ikusita, nahiko gogorra izan zen.

H.- Normala al da pertsona bat gantzontzilo eto lata bat lapurtzeagatik epaitegira eramatea?

R.B. Ez, ez da normala. Eta, gainera, hipermerkatu horretakoek aldatu egin zuten beren iritzia eta ez zuten jende gehiago eraman epaitegira horrelako gauzengatik.


H.- Donostiako epaitegian ba omen dago juizioak egiteko gela bat normalak baino «modernoagoa». Gelaren itxura ez da gela klasikoarena. Bada, esaten dutenez, epaile batzuri ez omen zaie oso gela aproposa iruditzen epaiketak egiteko.

R.B. Zuzentasuna banatzeko, gela da gutxienekoa. Garrantzia hor egiten den lanak du. Pertsona bat zigortu behar baduzu, forma batzuk beharko dituzu; ezin duzu edozein lekutan egin. Baina, txukuna eta apaina bada, nahikoa da.

EPAILE GEHIAGO BEHAR DA

H.- Azken bolada honetan asko hitz egin da justiziaren akats eta beharrez. Zure ustez, zer behar du hobeto funtzionatzeko?

R.B.- Ni egon naizen beste epaitegi batzutan lan asko zegoen atzeratuta eta pilatuta. Guzti hura aurrera ateratzeko zegoen jendea ez zen nahikoa. Nik beste epaitegietako egoera ez dut ezagutzen, dudan erreferentzia bakarra ni egon naizen epaitegitakoa da. Haietan epaile gehiago behar ziren lan guztia aurrera ateratzeko.



«Uste dut gehixeago kobratu beharko genukeela. Lan honek ardurak asko ekartzen ditu».

H.- Eusko Jaurlaritzak epaitegi gehienek informatizatzeari ekin dio, hau laguntza bat izan daiteke.

R.B. Tresna hori nahiko konplikatu da lanerako eta ikasi egin behar da



«Esan didatenez, egoera aldatu egin da eta Euskal Herriko opositore asko ari dira ateratzen».

aldatu egin da eta Euskal Herriko opositore asko ari dira ateratzen. Hemen, Donostian, epaile asko bertan jaioak dira.

H.- Garrantzitsua al da epaileak bertakoak izatea?

R.B.- Bai, garrantzitsua da bertakoak izatea. Ez da berdina hemen bizi den giroa ala Sevillakoa. Herri bakoitzeko arazoak eta izaera ezberdinak dira eta, hori ondo ulertzeko, garrantzia izan dezake bertakoa izatea.

H.- Baina, azken finean, legea bera da bi lekuetan.

R.B.- Bai. Baina, adibidez, Sevillan irekiagoak dira izakeraz eta han duten hitz egiteko modua hemen falta edo hutsegitea izango litzateke juicio batetan eta haien zat ez da. Beste eskema batekin joaten bazara, ohitura eta balore horiek nahasi eta aldatu egiten dituzu.

erabiltzen. Nik ez dakit ezer makina horietaz eta, jartzen baidate, hasieran tresna erabilezina izango da niretzat; ikasi egin beharko nuke.

H.- Hazienda informatizaturik dago, Barne Ministeritza ere bai, eta orain Justizia informatizatuko dute. Kontrol honek askotan nolabaiteko mesfidantza sortzen du jendearengan.

R.B. Ordenagailuak tresna bat besterik ez dira, beste gauza bat da zer-nolako erabilera egiten den.

H.- Orain dela urte-pare bat edo, asko komentatzen zen epaile gehienak kanpotik etorritakoak zirela eta egonkortasun txikia zutela. Aldatu al da egoera hau?

R.B.- Niri esan didatenez, egoera hori

H.- Joan den urtean minigona zela eta, bi epai erabat kontrajarriak eman ziren. Lehenengoan, probokazio kontsideratu zen minigona eramatea eta, bigarrenan, neskaren intimitatearen aldekoa izan zen. Nola eman daitezke bi epai hain kontrajarriak?

R.B. - Legea bat da, baina era askotan irakur daiteke. Lehenengoak era batetan ulertu zuen legea, bigarrenak, ordea, beste modu batetan.

EPAILEAREN SENTSIBILITATEA

H.- Beraz, epailearen sentsibilitatea oso garrantzizkoa izan daiteke?

R.B.- Bai. Azken finean, legearen interpretazioa egin behar dugu.

H.- Orduan, epailearen egoera animikoak ere eragina izan dezake?

R.B.- Ez dakit, nik ez dut sentitu. Kanpoko jendeak esan beharko luke, bada, agian autoritarioago zaudela edo, baina nik ez dut sentitu.

H.- Eta era diferentean hartzen al da 200 milioitako edo 100 pezetako espedientea?

R.B.- Dirua gutxienekoa izaten da. Arrazoia nork duen begiratu behar da. Indemnazioarena azkeneko pausua izaten da.

H.- Tokatu al zaizu noizbait pertsona ezagun edo lagun bat epaitzea?

R.B.- Behin pertsona ezagun bat epaitzea tokatu zitzaidan. Espedientea irakurtzen ari nintzenean, bere izena irakurri nuen, baina epaiketa-gelara sartu baino lehen, elkarrekin konpontzera iritsi ziren bi aldeak. Hala eta guztiz ere, laguna izango balitz, legeak esaten du beste epaile bati pasa beharko niokeela.

H.- Orain dela gutxi epai bat atera zenuen euskaraz. Euskal Herrian ez dira asko euskaraz dakiten epaileak. Zuk ezagutzen duzunarengatik, zein balorazio egiten da euskararekiko?

R.B. Norbaitek euskaraz egin nahi badu, ez da oztoporik jartzen; baina epaileek ulertzea eskatzen dute eta horretarako itzultzaileak eskatzen dira. Itzultzaileek egiten duten itzulpena ez da oso literala izaten batzutan eta gure lanean nabardurak garrantzitsuak izan daitezke.

H.- Ondo ordainduta al dago zure lana?

R.B.- Ez dakit. Uste dut gehixeago kobratu beharko genukeela. Lan honek ardura asko ekartzen dizkizu.

I. IRAETA
HABE - 191 (1991ko Otsaila)